



EH Bilduren proposamenak Iruñeko hiriarentzat.

2023tik 2027ra bitarteko urteak

1. Zer da dokumentu hau?	3
2. Zer aurkitu dezakegu dokumentu honetan?	4
3. Irakurketa Errazera egokitzapena	5
4. EH Bildu alderdi politiko bat da	6
5. EH Bilduk nor aurkeztuko du hauteskundeetara pertsona hautagai bezala?	7
6. Zer egingo dugu EH Bildun?	8

1. Zer da dokumentu hau?

Dokumentu hau EH Bilduk
2023tik 2027ra bitartean
Iruñeko hiriaren egoera hobetzeko
egindako proposamenen
laburpen bat da.
Irakurketa Errazean idatzita dago.

EH Bildu Euskal Herria Bildu esan nahi du.
Dokumentu hau Irakurketa Errazean idatzita dago.
Horrek esan nahi du
testua jarraibide batzuen arabera idatzita dagoela
eta jarraibide horiei esker
testua pertsona guztientzat
ulertzeko errazagoa dela.



Hau Irakurketa Errazaren logo europarra da.

2. Zer aurkitu dezakegu dokumentu honetan?

- Dokumentu honetan atal guztiak aurkitzen lagunduko dizun aurkibide bat dago.
- Dokumentu honetan glosak aurkituko dituzu.

Glosak honelako koadroak dira:

Ezkerreko gobernua*:

Pertsonen eskubideen
berdintasunera iristeko
gizartearen aldaketa
defendatzen duen gobernua da.

Glosak hitz zailen ondoan agertzen dira eta esanahia azaltzeko balio dute.

- Dokumentu honetan Iruñea hobetzeko EH Bilduren proposamen garrantzitsuenak aurkituko dituzu.

3. Irakurketa Errazera egokitzapena

Gogoratu dokumentu hau
EH Bilduk Iruñeako hiriarentzat egindako
proposamenen laburpena dela.

Egokitzapen hau
Nafarroako Irisgarritasun Kognitiboaren Bulegoko
profesionalen taldeak egin du.
Bulegoak OACNA ere du izena.

Gainera, ANFASeko balidatzaileen taldeak
programa balioztatu du.

Balioztatzea ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonen
testu bat ulertzen den ala ez esatea da.

4. EH Bildu alderdi politiko bat da

EH Bildu alderdi politiko bat da
eta Euskal Herria Bildu esan nahi du.

EH Bilduren irudia hau da:



Irudi honetan
alderdiaren siglak ikus ditzakezu.

5. EH Bilduk nor aurkeztuko du hauteskundeetara pertsona hautagai bezala?

Hauteskundeak 2023ko maiatzaren 28an dira.

Egun horretan
pertsona hautagai ezberdinak aukeratzeko
bozkatu egin behar da.

Pertsona hautagaiak kargu baterako
proposatzen diren pertsonak dira.



Argazkian agertzen den pertsona
Joseba Asirón da
eta Iruñeko Alkatea izateko **hautagaia** da.

Hauteskunde hauetan
Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria izateko
hautagaiak ere bozka ditzakezu.

6. Zer egingo dugu EH Bildun?

EH Bildun Iruñea

hiri libre bat izateko lan egingo dugu.

Maiatzaren 28an hauteskundeak irabazi nahi ditugu.

Lortzen badugu

Iruñean **ezkerreko gobernu*** bat egongo da.

Gure alderdia ezkerreko gobernu bat eskaini dezakeen bakarra da.

Gure alderdiak

beste alderdi batzuekin akordioak lortzen daki, nahiz eta modu ezberdinean pentsatu.

Iruñea pertsona guztientzat izatea nahi dugu, helduenetatik hasi eta haurretaraino.

Alderdiarentzat gai garrantzitsu asko daude.

Adibidez:

- Garrantzitsua da herritarrek etxebizitza bat eta kalitatezko enplegu bat izatea, hau da, baldintza onak izatea.
- Iruñea hiri **jasangarria** izatea nahi dugu. Horrek esan nahi du pertsonok orain ditugun beharrei erantzungo diegula baina hurrengo belaunaldiei utziko diegun munduari kalte handirik egin gabe.

Ezkerreko gobernu*:

Pertsonen eskubideen berdintasunera iristeko gizartearen aldaketa defendatzen duen gobernu da.

Hau lortzeko, garraio publikoan bidaiatzea merkeagoa eta kalitate hobekoa izatea saiatuko gara.

Garraio publikoaren adibide bat villavesak dira.

Era berean, Iruñean bizikletaz edo oinez joatea errazagoa eta seguruagoa izatea nahi dugu.

- EH Bildurentzat kultura oso garrantzitsua da. Gure egunerokotasunarekin zerikusia duen guztia euskaraz bizitzeko eskubidea defendatzen dugu.
- Pertsona guztientzako haur-eskolak egotea oso garrantzitsua dela uste dugu. Haur-eskolak doakoak eta kalitatezkoak izan behar dira.
- Iruñea hiri aktiboa izan behar da eta bertan hainbat pertsonak eta elkartek parte hartu behar dute hainbat gai buruzko iritzia emanaz.
- Garrantzitsua da tokiko dendei laguntzea aktibo egon daitezen eta **ekonomia sortu*** dezaten. **Tokiko dendak** hemengoak diren dendak dira.

Ekonomia sortu*:

Enplegua sortzen laguntzea, diru gehiago ekoiztea eta horrela hobeto bizitzeko behar duguna izatea.

Zure laguntza eta bozka behar dugu Iruñea hiri moderno bat izatea lortzeko eta beste hiri batzuentzat eredu izan dadin. Hau da, hiri hobea izateko.

Iruñea bakarra da eta horregatik
zu bezalako pertsona askok bezala,
guk eta beste pertsona batzuek bezala
Iruñeak irabaztea nahi dugu.
Eta gure lanarekin
irabazi egingo du.

Nolakoa da gure lantaldea?

Hauteskunde hauetara aurkezten diren
pertsonek taldearen barruan
alderdian denbora bat daramaten pertsonak daude
baina pertsona berriak ere badaude.

Hiriarekin oso konprometituta gauden pertsonak gara,
desberdinak gara
eta gure alderdiko pertsona guztiak ordezkatzeko ditugu.

Guztiok dugu EH Bildu izeneko proiektu bera,
hau da, gure alderdiaren lana.
Eta denok helburu bakarra dugu.
Gure helburua Iruñearentzat lan egitea da.

Zer egingo dugu **etxebizitzarekin**?

EH Bildurentzat oso garrantzitsua da etxebizitzarekin espekulaziorik ez egitea.

Espekulatzeak etxebizitzekin negozioa egitea esan nahi du.

Adibidez, etxebizitza bat prezio batean erostea gero askoz ere diru gehiagorengatik saltzeko.

Alderdiarentzat oso garrantzitsua da ere etxebizitza berriak eraiki ordez dagoeneko eraikita dauden etxebizitzak erabiltzea eta hauei etekina ateratzea.

Gauza bera gertatzen da etxebizitzak eraikitzen diren lurzoruarekin.

Garrantzitsua da hutsik dauden lurzoruak erabiltzea.

Gainera, etxebizitzaren gaiari buruzko akordioak administrazio publikoen

edo kooperatiba sozialen artean egin beharko liratekeela uste dugu.

Hauek etxebizitzarekin dirurik irabazi nahi ez duten erakundeak dira.

Etxebizitzan landu beharreko hainbat gai garrantzitsu ditugu:

1. 2023tik 2027ra etxebizitza sozialeko plan bat egin nahi dugu.

Iruñean etxebizitzarekin espekulatzen da.

Espekulazioaren adibide bat

Salestarren dorreetako etxebizitzak dira.

Hauak dira dorreak:



Guretzat etxebizitza eskuratzearen gaia serio eta sakon hartzeko unea da.

Pertsona askok ezin dute etxebizitzarik izan.

EH Bildurentzat garrantzitsua da:

- Etxebizitza bat eskuratzea **eskuragarria** izatea, hau da, prezio baxu batean erosi ahal izatea.
- Etxebizitza ez espekulatzea.
- Zer egin dezakegun azaltzeko adibide bat dugu:
Gehien behar duten pertsonentzat etxeak **birgaitzea**, hau da, hirikoak diren eta abandonatuta dauden etxebizitzak eraberritzea.
- Hutsik dauden etxebizitzak arrazoizko prezioekin alokairuan jarri nahi ditugu.

**2. Gazteei independizatzen lagundu nahi diegu,
hau da, etxetik joaten.**

Hau lortzeko etxebizitzak dituzten eraikinak
sortu nahi ditugu
horrela gazteak independizatu ahal izateko.
Etxebizitza txikiak eta merkeak izango lirateke.

Era berean garrantzitsua ikusten dugu
hiriak gazteei
errotzeko alokairuko etxebizitzak ematea.
Errotzeko alokairua zu zaren lekutik gertu,
hau da, zure inguruan,
alokairu bat izatea da.

Beste etxebizitza mota bat ere defendatzen dugu.
Pertsona ezberdinek etxebizitza partekatzen duten
eta elkar zaintzen diren
etxebizitzak sortzea posible dela uste dugu.
Adibidez, ikasle batek etxebizitza
adineko pertsona batekin partekatzea.
Gazteak ez luke etxebizitzagatik dirurik ordainduko
eta trukean adinekoa zainduko luke.

3. Etxebizitzaren prezioari

muga bat jarri nahi diogu.

Iruñeko etxebizitzaren alokairuaren prezioa oso garestia da.

Uste dugu oso garrantzitsua dela prezio hauei muga jartzea horrela hain altuak ez izateko.

Iruñeko Alde Zaharra alokairuaren prezioa altuena den eremuetako bat da.

Leku hau zainduko dugu hau gerta ez dadin. Arazo bera duten beste auzo batzuk ere zainduko ditugu.

Zer gertatzen ari den eta nola konpon daitekeen sakon aztertu nahi dugu.

Nolako izango da gure **governatzeko modua**?

Hainbat gai garrantzitsu landu behar ditugu:

1. Auzoz auzo eraikitzen den hiria.

Iruñeko pertsonak garrantzitsuak izatea eta auzoarekin zerikusia duen guztian gero eta gehiago parte hartzea nahi dugu. Adibidez, festen programazioan parte hartuz.

Garrantzitsua da auzo guztiek behar dutena izatea.

CIVIVOX-etan eta beste zentro batzuetan auzo bakoitzari buruzko informazio puntuak egotea nahi dugu.

Toki horietan udal erregistroa egotea nahi ditugu.

Erregistroak tramiteak egiten diren bulegoak dira, adibidez, Administrazioari iradokizun bat egitea.

2. Memoria historikoa egiteke dagoen gai bat da.

Memoria historikoa bizi izan dugun eta guretzat garrantzitsua den historiari dagokio.

Horregatik ez da ahaztu behar eta gogoan izan behar da.

- Guztion artean Erorien eraikinarekin eta haren inguruarekin zer gertatuko den pentsatu behar dugu. Hau da eraikina:



- Txantrea auzoan dagoen urbanizazio berriak Francok gobernatzen zuen garaia zigorrak jasan zituzten emakumeei eskaini behar zaie. Adibidez, urbanizazioko kaleak edo plazak izendatzeko haien izenak erabiliz.

3. Irisgarritasun-bulego bat

eta zarataren mapa bat sortzea

Irisgarritasun-bulegoak

Iruñea hiri irisgarria izan dadin lan egingo du.

Zarataren mapa ere egin nahi dugu.

Hau da, azterketa bat egin nahi dugu

Iruñeko zein lekutan dagoen zarata gehien jakiteko

eta gai hori konpontzeko

zer egin daitekeen jakiteko.

4. Espazio publikoaren erabilera.

Espazio publikoak,

hau da, pertsona guztienak direnak,

guztionezako jarduerak egiteko erabili behar ditugu.

Kalean jarduerak egin nahi ditugunean

pertsona guztiok aukera berdinak izan behar ditugu

jarduerak egiteko.

5. Hurbileko polizia.

Gure ustez polizia-taldeak

zigorren ezartzeaz gain

herritarrei laguntzen dieten

pertsonak izan behar dute.

Hobe da bizikidetza ona egon dadin lan egitea

eta horrela zigorra dakarten

jokabide txarrak prebenitzea.

Zer egingo dugu **berdintasunarekin,** **justizia sozialarekin eta zaintzarekin?**

Hainbat gai garrantzitsu landu behar ditugu:

1. **Pertsona guztiek**

beren burua zaintzeko lan egiten dute.

Uste dugu oso garrantzitsua dela
gizarte osoak beharrezkoa duten bizilagunak zaintzeko
modu koordinatuan lan egitea.

Adibidez, osasun sailak, hezkuntzak,
poliziak eta beste askok
elkarrekin lan egin dezatela.

Herritarrek ere
beren bizilagunak zaindu behar dituzte.

Udala pertsonen hurbilekoa izan behar du
eta behar dituzten baliabideak eman behar dizkie.

2. **4. berdintasun-plana babesten dugu.**

EH Bildurentzat garrantzitsua da
4. Berdintasun plana garatzen
eta Emakumeen Etxearen espazioa
zabaltzen laguntzea.

3. Arrazakeriaren aurka borrokatzeko lan egin nahi dugu.

Arrazakeria arraza bateko pertsona bat bestea baino hobea dela pentsatzea da.

Arrazakeriaren aurka borrokatzeko pertsona migratzaileei, hau da, beste herrialde batetik datozenei, ongietorria egiteko protokolo bat sortu nahi dugu.

Pertsona horien irudi ona sortu nahi dugu eta aniztasuna eta pertsonen arteko desberdintasuna ona dela adierazi.

Horrela gizartea hobea izango da.

4. Adineko pertsonak.

Donibane auzoan adinekoen akordio bat dago.

Akordio hau plan baten antzekoa da.

Akordio hau

beste auzo batzuetara ere iristea nahi dugu.

Adineko pertsonentzako

2 proiektu berri sortzea ere gustatuko litzaiguke:

- **Jubiloteka** bat

adineko pertsonak beren osasunaren hainbat alderdi lantzeko eta aldi berean ongi pasatzeko.

- Adineko pertsona ahulenek

dentistarenera joan ahal izateko **bonu** bat, hau da, laguntza moduko bat.

5. LGTBI+ pertsonak.

LGTBI+ pertsonak pertsona lesbianak,
gayak, transexualak, bisexualak
eta + zeinuan sartuta dauden
beste pertsona batzuk dira.
+ zeinua **plus** irakurtzen da.

Lehenengo LGTBI+ Plana
abian jarri nahi dugu
kolektibo honetako pertsonen
eskubideen alde lan egiteko.

Gainera guretzat Harrotu Zentroari
indarra ematea garrantzitsua da.
Harrotu Zentroa
LGTBI+ pertsonen eskubideen
eta haien gizartean parte hartzearen alde
lan egiten duen zentro publiko bat da.

Zer egingo dugu **trantsizio energetikoarekin** eta **klima-aldaketarekin**?

Hainbat gai garrantzitsu landu behar ditugu:

1. **Garraio publikoa, txirrindularia eta oinezkoa.**

Gure ustez honako hau
oso garrantzitsua da:

- **Garraio publiko berde** bat egotea,
hau da, gutxiago kutsatzen duena.
Adibidez, garraio publiko elektrikoa izatea.
Gainera, garraioa merkea izan behar du.
- Leku batetik bestera
modu seguruan joan ahal izatea,
bai bizikletaz bai oinez.

Gure ustez Iruñerria osoan
bizikleta publiko elektriko gehiago
egon behar dira
eta Bosquecillo parkearen inguruan
bizikletaren zentro bat
egon beharko litzateke.

Zentro honek konpontzeko tailer bat,
bizikletei buruz ikasteko Bizieskola bat
eta **Euro Velo***-arekin zerikusia duten
gaiei buruzko ikasteko
informazio puntu ziklista bat izango ditu.

Euro-Velo*:

Europar zehar dauden
bizikleta-ibilbideak dira.

2. Zuhaitz berrien baso handi bat.

Uste dugu Iruñean zuhaitz berri ugari landatzea oso garrantzitsua dela.

Horrela, bero-irlen aurka borrokatuko dugu.

Bero-irlak hirietan

bero handia pilatzen duten eremuak dira, adibidez, hormigoizko eraikin asko daudelako.

3. Sarasate pasealekua, Marcelo Celayeta eta Sanduzelaiko biribilgunea.

- Sarasate pasealeku irisgarri bat nahi dugu. Bertan dauden zuhaitzak mantendu nahi ditugu.
- Marcelo Celayeta kalearen diseinu berria egingo dugu Sanduzelaiko biribilgunetik barrena Cuatro Vientoseko zubi berrira irits dadin.

4. Eraikinak berreraikitzeo eta energia berriztagarriak sartzeko laguntza gehiago.

Garrantzitsua da eraikinetan berreraikuntzak egin ahal izateko laguntzak egotea.

Energia berriztagarriak lortzen laguntzen duten eguzki plakak jartzeko ere laguntzak behar dira.

Energia berriztagarriak

naturatik lortzen den energia da,

agortu ezin dena eta kutsatzen ez duena.

Horretarako birgaitze-bulego irisgarriak sortuko ditugu.

EH Bildurentzat
trantsizio energetikoa garrantzitsua da,
hau da, kutsatzen duen energia fosila
kutsatzen ez duen
energia berriztagarriagatik aldatzea.

**5. Udalerriak lotuko dituen
eraztun berde eta produktibo bat.**

Horrek esan nahi du
Iruñerriko herrien artean
berdegune handiak sortu nahi ditugula.
Berdegune horiek nekazaritzarako erabiliko dira.
Horrela adibidez,
Iurretik elikagai gehiago lortuko ditugu.

Zer egingo dugu **kulturarekin**, **euskararekin eta hezkuntzarekin**?

Hainbat gai garrantzitsu landu behar ditugu:

1. Iruñeak Euskal Pilotaren Museoa merezi du.

Labrit pilotalekutik gertu
Euskal Pilotaren Museo bat sortu nahi dugu
kirol honi dagokionez
munduko tokirik garrantzitsuena izan dadin.

2. Euskara Iruñean.

Iruñea gaztelania eta euskara
elkarrekin bizi diren hiria izan daiteke.
Horretarako Iruñeko herritar guztien
hizkuntza eskubideak errespetatzeko
plan bat egingo da.

3. Haur eskola berri bat Donibanen.

Lehen espetxea zegoen lekuan
haur eskola berri bat sortu nahi dugu.
Horrela, haur gehiagok
haur eskolara joateko aukera izango dute.

Gainera adin horietan
hezteari indar handiagoa ematea
eta familiei ere laguntzea
garrantzitsua iruditzen zaigu.

**4. Salestarren Civivox-a
eta bigarren Zabalguneko Civivox-a.**

Salestarren Civivox-a
musika taldeek jo
eta entsaiatzeko izatea nahi dugu.
Iruñeko musikaria izan zen
Pablo Sarasateren museoa ere
bertan sortu nahi dugu.

Maristas-en Bigarren Zabalguneko
Civivoxa sortu nahi dugu.
Gainera Champagnat zinemak
berriro martxan jarri nahi ditugu.

5. Kultura garaikideko zentro bat Ziudadelan.

Iruñeko Ziudadelan
kultur zentro bat sortu nahi dugu.
Zentro honetan
kultura garaikidea sortu eta erakutsiko da.

Zer egingo dugu

tokiko ekonomiarekin eta berrikuntzarekin?

Berrikuntza zerbait aldatzea da
aldaketa horretan gauza berriak sartuz.

Hainbat gai garrantzitsu landu behar ditugu:

1. Kale Nagusian Coliving bat sortzea.

Coliving-a ikerketan dabiltzan pertsonak
bizi eta lan egiten duten lekua da.

Coliving hau Iruñeko Kale Nagusiko

59. zenbakian egongo da.

Proiektu hau

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera egingo da.

Lan-eremua

Enpresa Gazteen Elkartearekin elkarbanatuko da.

2. Antzinako lokalak babestea

eta tokiko merkataritza sustatzea.

EH Bildurentzat hemengo merkataritza,

hau da, tokiko merkataritza,

eta urte asko dituzten saltokiak zaintzea

garrantzitsua da.

Merkataritza bulego bat

eta merkeak diren alokairuko saltokien

zerrenda bat sortu nahi ditugu.

3. Arantzadi inguruan

arte eta natura zentro bat sortzea.

4. Iruñea- Pamplona, zinemako hiria.

Ikus-entzunezko eta Zinema Industriaren Hub-a
Arantzadi inguruan kokatu nahi dugu
Agustinen Komentu zaharrear
hain zuzen ere.

Hub bat zinemaren munduan
lan egiten duten pertsonak biltzeko
eta lan egiteko leku bat da.

5. Geltoki.

Geltoki-a defendatzen dugu,
autobus geltoki zaharraren gunea.
Hemen elikadura osasuntsua,
zonaldekoa eta ekologikoa aurki ditzakegu.

Gainera gunea hau
ekonomia justu eta solidarioarekin antolatzen da.
Ekonomia mota honek
pertsonek artean desberdintasunik ez egotea
lortu nahi du.



Texto adaptado y validado
por la Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra (OACNA)
ANFAS



Logo europeo de lectura fácil:
©European Easy-to-Read Logo: Inclusión Europe.
Más información en: <http://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>